

Hernanik kronika

TOKIKOM 2013ko abenduaren 18a, asteazkena ::: 4.587 zk. ::: www.kronika.net

UDAL KIROL BATZORDEA

Lau kirol sari banatuko dira ostiralean, kirolarien lana eskertuz

Honakoak dira lau sariak: Kirolarien Saria emakumezkoentzat, Kirolarien Saria gizonezkoentzat, Babes Saria eta Hernani Saria. 8 hautagai daude. Bestalde, kirol instalazioei buruzko hausnarketaren emaitzak eta konpromisoak aurkeztuko dituzte. 19:30etan, Biterin.

HERNANIKO kirol arloan egitasmo berri bat jarri zen martxan iaz, hernaniarrek kirol munduan egindako lana eskertzeko. Egitasmo horrekin jarraituz, aurten ere kirol sariak banatuko ditu Udalak. Ekitaldia, ostiralean izango da, 19:30etan Biterin.

Aurten, zehazki, lau sari izango dira: Kirolarien Saria emakumezkoentzat, Kirolarien Saria gizonezkoentzat, Babes Saria eta Hernani Saria. Hautagaiak kirol elkarteek proposatu dituzte eta ondoren, beraien bozkaren bidez erabaki dituzte aurtengo irabazleak.

Hiru hautagai, emakumezkoetan

Emakumezkoetan Kirolarien Saria jasotzeko, 3 hautagai daude: Esther Lopez boleibol jokalaria, Amaia Irazustabarrena palista eta Ainhoa Gaspar gimnasta.

Bi hautagai, gizonezkoetan

Gizonezkoetan kasuan, berriz, Kirolarien Saria jasotzeko, bi hautagai daude: Ioritz Arrieta pelotaria eta Peru Alfaro triatleta.

AMR enpresak, Babes Saria


Babes Saria jasotzeko, hautagai bakarra proposatu dute kirol elkarteek: AMR Refractorios SA enpresa. Bera izango da saritua. Diru laguntza emateagatik sarituko dute.

Ibilbide luzeko bi kirolari Hernani Sarirako


Ibilbide luzeko bi kirolari proposatu dituzte Hernani



Esther Lopez - Boleibola.



Amaia Irazustabarrena - Pala.



Ainhoa Gaspar - Gimnasia.

Udalak gonbitea luzatzen die herritar eta herriko elkarte guztiei ostiralean Biterira azaltzeko.

Saria jasotzeko, eta bakoitzak bere arloan lan handia egin duena Hernanin: Miguel Angel Garin (atletismoa) eta Batis Larburu (arrauna).

Kirol instalazioei buruzko konpromisoak

Sariak banatu aurretik, kirol instalazioei buruzko hausnarketaren emaitzak eta konpromisoak azalduko dituzte. Gaia lantzeko, lau foro antolatu zituen Udalak, prozesu partehartzaile baten barruan. Foro horietatik hainbat datu atera dituzte eta horien berri emango dute ostiralean. Udalak gonbitea luzatzen die herritar eta herriko elkarte guztiei. ||



Ioritz Arrieta - Esku pelota.



Peru Alfaro - Triatloia.



Batis Larburu - Arrauna.



Miguel Angel Garin - Atletismoa.

❖ GAZTE TXOKOA

Gabonetako dekorazioa lantzen

Gazte Txokoan (Aristizabal 5) Gabonetako dekorazioa landuko dute gaur eta bihar. Ostiralean, berriz, Topagunea izango da eta larunbatean, Santo Tomas festa. Astea futbolin txapelketarekin agurtuko dute. Bestalde, datorren ostegunean ginkana antolatu dute eta izena eman behar da. ||

❖ GABONAK

Perkusio eta teklatu taldeen emanaldia, gaur

Musika Eskolako perkusio eta teklatu taldeek Gabonetako kontzertua eskainiko dute gaur. 17:00etan Milagrosan izango da eta 19:00etan Biterin. ||

Kontzertua gaur, Ereñotzuko elizan

Eguberritako abesti emanaldia izango da gaur Ereñotzuko elizan, 19:00etatik aurrera. Parte hartuko dute: Txirrita ikastetxeko ikasleek, Doinu-zale musika eskolako ikasleek eta Ozenki abesbatzak. Ondoren, merienda izango da auzo etxean. ||

❖ HERNANI ERROTZEN

'Orreaga 778-824' dokumentala, gaur

Dokumental emanaldia antolatu du gaur Hernani Errotzenek. 19:30etan, Biterin. Orreaga 778-824 emango dute. Nabarralek eginga da Hernaniko Udalaren laguntzarekin. ||

❖ UDALA

Gazte lokalei buruzko prozesu parte hartzailea

Hernaniko Udalak abian jarri du gazteek erabiltzen dituzten lokalen inguruko partaidetza prozesua eta gaur prentsaurrean azalduko dute prozesua. Larramendi kaleko plazan izango da 11:30etan. ||

RUEDA DE ASIA
Florida auzoan, DIA eta LIDL-en ondoan
PREZIORIK ONENAK
55 APARKALEKU
ORDUTEGIA 9:15 - 21:15

GABON HAUETAN
OPARITU EDERTASUNA
ETA ONGIZATEA
ETORRI GURE TRATAMENDUAK EZAGUTZERA

nibiru
UNISEX EDERGINTZA ZENTROA

AUTOMAKILLAJE IKASTAROA : INDIBA TRATAMENDUA
MANIKURA-PEDIKURA : MIKROPIGMENTAZIOA
MASAJEAK : SPA TRATAMENDUA
FOTODEPILAZIOA

Izpizua, 1 T. (+34) 943 24 35 60
20120 Hernani M. (+34) 689 581 536
Gipuzkoa E. info@nibiruedergintza.com
www.nibiruedergintza.com

GABONETAKO ZOZKETA 2013

BERRIAK-EKO MERKATARI ETA OSTALARIEK JARRITAKO SARI EZBERDINAK: **JAKIAK, JANTZIAK, AFARIAK...**

ERRIFAK SALGAI!!
SASKIAK OSATZEN!!

Prezioa **1€**

ERRIFAK SALGAI 1 €-AN BERRIAK-EKO ESTABLEZIMENDUETAN ETA HERNANIKO KRONIKAKO BANAKETA PUNTUETAN

Zozketa abenduaren 20ean, Biteri kultur etxean

OPARIAK JARTZEKO DEITU 943 33 08 99 ZENBAKIRA

TELEFONOAK

● **Taxiak:** 943 550093 ● **Udaltzaingoa:** 092 ● **DYA:** 943 464622
 ● **Autobusak:** Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
 ● **Anbulatorioa:** 943 006666 - 943 203020 ● **Jokalari anonimoak:** 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak:** 943 331103
 + **FARMAZIAK** ● **Egunez: Etxebeste** Elkano 2 - 943 552087 ● **Gauz: Aldabe** Perkaiztegi 8 (Antziola) - 943 336022

AMHER ELKARTEA - ETORKINEN EGUNA

Kolonbiar kulturari buruzko tailerra izango da gaur

Afrikak Kolonbian utzitako herentziaz ariko dira. Kolonbiako dantza folklorikoa eta egungo hizkuntza aztertuko dituzte, 19:00etan Biterin.

TAILERRA eta hitzaldia antolatu ditu Amher elkarteak gaur, Etorkinen Eguna harira. Kolonbiar kulturaz ariko dira eta bertan Afrikak utzitako herentzia aztertuko

dute. Zehazki, Kolonbiako dantza folklorikoa eta egungo hizkuntza landuko dituzte, tailer praktiko baten bidez. Helburua da, kultur aniztasunaren aberastasunaz

jabetuaraztea.

Biterin izango da iluntzeko 19:00etatik aurrera eta Henry Ibarguen Murillo irakasleak zuzenduko du saioa. ||

URUMEA IKASTOLAK 50 URTE

Santo Tomas egun berezia, mende Erdiko ibilbidea ospatzeko

Ostiralean ospatuko dute Santo Tomas eguna, Urumea Ikastolan. Bestalde, Iñude eta Artzaietarako dei egiten diete ikasle ohiei.

URUMEA Ikastolak 50 urte bete ditu aurten eta mende Erdiko ibilbidea ospatzeko, hainbat motako ekintzak antolatuko dituzte ikasturtean zehar. Hasteko, ostiralean bertan, Santo Tomas eguna ospatuko dute. Urumea Ikastolako Guraso Elkarteak antolatu du egun hau eta izaera berezia eman nahi diote, ikasturte berezia den heinean. Asmo horrekin izango dira: herri kirolak, gabon kantak, trikitalariak, Olentzeroren bisita... eta noski, txistorra!

Iñude eta Artzai berezia
Urtero bezala, Inauterietan

batera, Iñude eta Artzaien konpartsa antolatuko du Urumea Ikastola eta berezitasun moduan, ikasle ohiek ere parte hartzea pentsatu dute. Parte hartu nahi dutenek, deitu besterik ez dute: 685 727 387 edo 688 660 707.

Guraso talde baten ausardia
Gogorarazi dute, Urumea Ikastola, guraso talde baten ekimenez sortu zela, «hain ausardiari esker, sementalabak euskeraz hezteko helburuarekin; euskerazko irakaskuntza eta beste eskola eredu bat ziren une hartako ametsak». Jende askoren laguntza izan dutela

ere azpimarratu dute: «Tartean zailtasunak ez dira gutxi izan, baina urtez urte egokitu eta aurrera egin du. Urte hauetan zehar jende askok lagundu du ikastolaren proiektua eraikitzen eta sendotzen. Hasieran ikasle talde txiki batekin martxan jarritako, eta egun 500 ikasle inguru hezten dituen ikastola da. Urumea Ikastolaren hezkuntza ibilbidean, gizon eta emakume askoren amets, ilusio eta lanak daude, guztiak hartu baitute parte eraikuntza prozesuan: sorrerako partaideak, laguntzaileak, zuzendariak, irakasleak, gurasoak, ikasleak...». ||

ESKU PELOTA

Xabier Salaberria eta Oihan Zugasti txapelkun, Burlatan

Finala 18-17 irabazi zioten Zizurko bikoteari. Bestalde, Esnaola eta Murgiondo finalerako sailkatu dira, Gipuzkoako Txapelketan.

XABIER Salaberria eta Oihan Zugasti hernaniarrek Burlatoko Txapelketa irabazi dute. 18-17 nagusitu zitzaizkien Zizurko Zabalza eta Igoari. Lau pelotarietako oso ondo jokatu zuten eta markagailua berdinduta egon zen partidua osoan. Zugasti atzelariaren ihesaldiak erabaki zuen norgehiagoka. Azken honekin, 6garren txapela lortu dute Hernaniko pelotarietako denboraldi honetan.



Esnaola-Murgiondo, finalean
Gipuzkoako Txapelketan, Esnaola eta Murgiondo seniorrak finalerako sailkatu

dira, hirugarren mailan. Finalerdiko bueltako partidua galdu egin zuten 22-18 behar zenaren aurka, baina sailkatzeko beharrezkoak zituzten 18 tantoak lortu zituzten.

Pagola-Lazkano kadeteek eta Cisneros-Rodriguez jubentilek, berriz, galdu egin zituzten finalerdiak. Dena dela, azpimarratzekoa da txapelketa guztian erakutsitako maila. Kadeteek, esaterako, bi partidua bakarrik galdu dituzte. ||

EGURALDIA	GAUR	Egunak aurrera egin ahala, zerua lainotzen joango da. Iluntzean eta gau partean euri pixka bat egin dezake. Haizeak hegoalde-tik joko du. Min.10° / Max.17°.	BIHAR	Giro goibela eta umela izango dugu. Goizean, haizea ipar-mendebaldera aldatuko da eta egunaren bigarren partean gogor joko du. Min.9° / Max.12°.
	(euskaletan)			

Sexuari buruzko zalantzak argitzeko aukera ederra gaur, Plax! aholkularitzan

Gaske guztiei irekia da eta 16:30etatik 19:30etara izango da zerbitzua. Jolasak ere izango dira, besteak beste, zentzumenak lantzeko.

HARREMAN onak bultzatzeko asmoz, Harremonak egitasmoa dauka martxan Hernaniko Udalak eta horren barruan, Plax! zerbitzua dago gazteentzat, hau da, sexuaren aholkularitza zerbitzua. Hilabetean behin elkartzen dira adin ezberdinetako gazteak eta gaur izango da urteko azken saioa.

Herriko gaske guztiei luzatzen diete gonbidapena, plazazera plazara atera dezaten.

Eta honako galdera luzatu dute: *Sexkatzeizu gorputzak?*

Bakarkako kontsultak, jolasak...

Plax! zerbitzuan, sexua edo sexualitateari buruzko bakarkako kontsultak egiteko aukera dago. Horrez gain, jolasak egiten dituzte, zentzumenak lantzeko, besteak beste.

Plaza Feministan elkartzen dira (Aristizabal 7, Txanxilla) 16:30etatik 19:30etara. ||

ERAKUSKETA

Goelloren lanak ikusteko, azken eguna

Peio Goellok margo erakusketa jarria dauka Biterin eta gaur da bere lanak ikusteko azken eguna. *Hain urrun hain gertu* izena du erakusketak eta azken 30 urteetako bere margo-ibilbidea erakusten du. 18:00etatik 20:00etara egongo da ikusgai Biterin. ||

ELIZA

Martuteneko presoentzat produktu bilteta, Adiskidetza eta Formazioa, gaur

Martuteneko presoentzat produktuak biltzen ari da Hernaniko Parrokiarte eta gaur da biltetako azken eguna. Bestalde, Adiskidetza ospakizun eguna izango da gaur eta meza izango da Floridan, 19:00etan. Horrez gain, Formazio Asteko saioak izango dira gaur eta ostiralean, 20:00etan Atetxikietan. ||

GABONETAKO LOTERIA

EAJ-PNVren loteria erosteko, azken eguna

EAJ-PNV alderdiaren Eguberritako loteria erosteko azken eguna da gaur. Batzokian izango da salgai 18:00etatik 19:30etara. ||

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

<p>†</p> <p>III URTEURRENA</p> <p>Francisco Zabalo Amorena</p> <p><i>Conchita Mariezcurrena Aguirrezabalaren alarguna</i></p> <p>-Goian Bego-</p> <p>Franciscoren senitartekoen urtebetetze meza eskaini nahi diogu eta bertara gonbidatzen zaituztegu ezagutzen zenuten guztiak.</p> <p>Urteurrenoko meza, LARUNBATEAN, arratsaldeko 19:00etan, SAN JOAN BATAIATZAIKILEAREN parroki elizan. Aldez aurretik, mila esker.</p> <p>Hernanin, 2013ko abenduaren 18an</p>	
---	--

IRAGARKI MERKEAK

ETXKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, persianak... **Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.**

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta berbebrala, reflexologia, aurikuloterapia,...: **943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**